



300 pertsonak baino gehiagok inbertsio arduratsuaren etorkizuna aztertzen dute gaur Biscay ESG Global Summitean

- **Bizkaia inbertsio arduratsuaren mundu-hiriburu bihurtzen duen nazioarteko goi bilera honen hirugarren edizioa gaur inauguratu da, Bizkaiko Diputatu Nagusi Unai Rementeriaeren eskutik, eta Trantsizio Ekologikorako Ministro Teresa Riberaren parte-hartzea izan du.**
- **Biscay ESG Global Summit gaur amaituko da, 18:00etan, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomiako Sailburu Pedro Azpiauren hitzaldiarekin**
- **Egun osoan, mundu osoko 20 aditu baino gehiago biltzen dira, Euskalduna Jauregian, ESG inbertsioaren gako eta etorkizunaz eztabaidatzeko, hau da, ingurumen- eta gizarte-irizpideak eta gobernu onaren irizpideak erabiltzen dituen inbertsioaren etorkizunaz eztabaidatzeko.**
- **ESG irizpideak kontuan hartuta Estatuan gaur egun inbertitzen den dirua 170.000 eurotik gorakoa da, eta zifra hori sei halakotu da azken bost urteetan, Spainsif-en arabera**

Bilbo, 2019ko ekainak 19. Bizkaiak Biscay ESG Global Summitaren hirugarren edizioa hartzen du gaur, hau da, lurralde hau inbertsio arduratsuaren mundu-hiriburu bihurtzen duen nazioarteko goi bilera. Topaketak 300 pertsona baino gehiago bildu ditu, Euskalduna Jauregian, ESG inbertsioaren gakoak eta etorkizuna aztertzeko, hau da, ingurumen- eta gizarte-irizpideak eta gobernu



onaren irizpideak erabiltzen dituen inbertsioaren gakoak eta etorkizuna aztertzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak Deusto Business Schoolen eta Fineco-Kutxabank Banka Pribatuaren lankidetzarekin antolatuta, ekitaldia Bizkaiko Diputatu Nagusi Unai Rementariak inauguratu du, eta Trantsizio Ekologikorako Ministro Teresa Riberaren parte-hartzea izan du. Amaiera arratsaldeko 18:00ak aldera izango da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailburu Pedro Azpiauren eskutik.

Bizkaiko Diputatu Nagusi Unai Rementariak azpimarratu du bere helburua dela Bizkaia erreferentziazko lurralde bihurtu dadila ESG mugimenduarentzat, horixe baita Biscay ESG Global Summitaren arrazoi nagusia. Alde horretatik, adierazi du “orain dela hiru urte bide horren alde azaldu ginela, hortik ibiltzen zirenak oso gutxi zirenean. Gehiago aurreratu nahi izan genukeen, baina bidean jarraitzen dugu, bide egokia dela sinetsita”.

Batzarraren hasieran, gainera, Rementariak azpimarratu nahi izan du oso harro dagoela edizio honetara etorritakoen artean “Europar eta munduan arrakasta profesionala lortu duten bizkaitarrak” daudelako. Bere esanetan, konbentziturik dago arrakasta lortzen dutela “lur honetako balio komunei esker, hala nola lana, zintzotasuna eta emandako hitza”. Hori ESG kontzeptuarekin ere lotu du.

Egun osoan, mundu osoko 20 aditu baino gehiago elkartuko dira bizkaitar hiriburuan, askotariko eragile -auditoreak, aholkulariak, enpresak eta mundu akademikoko partaideak, besteak beste- biltzen dituen goi bilera honetan.

Goizeko protagonista, neurri handi batean, Informazio Ez-finantzarioari buruzko Legea izan da. Hala, Pablo Bascones PwCko Jasangarritasun, EGE eta Klimaldaketako Bazkide arduradunak Lege berri hau indarrean sartu osteko lehen sei hilabeteetako balantzea egin du.



Gainera, Basconesek aztergai izan ditu informazio ez-finantzarioari eskatzen zaion gardentasun gero eta handiagoaren inplikazioak, beste hauekin batera: Roberto Fernández Albendea, Iberdrola Taldeko EGE Zuzendaria; Erika Molinillo, Aernnovako Betearazpen Arduraduna; eta Susana Molinuevo, CIE Automotibeko EGE eta Betearazpen Zuzendaria.

Mundu akademikoaren ekarpena ere garrantzitsua izan da jardunaldiaren lehenengo zati honetan. Ane Tamayok, London School of Economicseko kontabilitate katedradunak, enpresaren gizarte-erantzukizunak gizarte-kapitalaren eta konfiantzaren eraikuntzan jokatzeko duen rola aztertu du. Cambridge Judge Business Schooleko unibertsitate-graduoko Finantzen irakasle atxiki Oğuzhan Karakaşek, berriz, inbertitzaileen arteko koordinazioaren garrantziaz hitz egin du, bi helbururi begira: alde batetik, enpresen ingurumen- eta gizarte-politikak aldatzea; eta, bestetik, akziodunentzako balioa sortzea.

Goi bilerak gaurko arratsaldean jarraituko du, ESG inbertitzaileek enpresa kotizatueta dituzten kezka nagusien inguruko eztabaida batez; partaideak honako hauek izango dira: Otelu Ruivo, GALPeko Inbertitzaileekiko Harremanen Arduraduna; José Miguel Tudela, Enagáseko Jasangarritasun Zuzendaria; eta Iñigo Mendieta de la Rica, Vidralako Finantza-plangintzaren eta Inbertitzaileekiko Harremanen Arduraduna.

Halaber, azpimarratzekoa da Séamus Finn apaizaren esku-hartzea, bera baita Oblate Investment Pastoral Trustaren Faith Consistent Investing programaren arduraduna. Bere hitzaldian, aztergai izango du zein diren inbertitzaile arduratsuek ESG irizpidez fidatzera eramaten dituzten arrazoiak, inbertitzeko aukera onak identifikatzekoan.

Finantzen munduak ere bere ordezkariak izango ditu goi bileran. Hala, hizlari hauek finantzen etorkizuneko jasangarritasuna aztertuko dute: Arturo Miranda, JP Morganeko Zuzendari Gerentea; Ignacio Gutiérrez, Citigroupen Espainiarako



Inbertsio Bankaren Presidentea; Javier Hernani, BMEko Kontseilari Delegatua; eta Ane Tamayo, London School of Economicseko Kontabilitate Katedraduna.

Horren ostean, amaierako ekitaldia egingo da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomiako sailburu Pedro Azpiatzuk protagonizatuta. Haren hitzaldiaren ardatza izango da finantza alternatiboek jasangarritasuna eta inklusioa bermatzeko tresna gisa jokatzeko duten rola.

Hirugarren edizio honekin, Biscay Esg Global Summit ezinbesteko zita gisa finkatzen da. Bizkaia kokatzen du finantza jasangarrien alorreko nazioarteko erreferente gisa, eta lurraldeak finantza-plaza modua betidanik izan duen protagonismoa berresten du.

ESG inbertsioa: errentagarritasuna eta ardura

Gaur egun, inbertsio errentagarriak ez ezik, inbertsio-komunitateak inbertsio arduratsuak eskatzen jarraitzen du, gero eta neurri handiagoan, eta horrek eskatzen du irizpide jasangarriak txertatzea inbertitzeko erabakiak hartzeko prozesuetan. Testuinguru horretan, Biscay ESG Global Summit topagune egokia da ESG irizpideez eztabaidatzeko, sozialki arduratsua den inbertsioaren alorrean, eta baita haren aurrerapen eta finkapenaz ere eztabaidatzeko.

Ingurumen- eta gizarte-irizpideak eta gobernu onaren irizpideak kontuan hartuta Estatuan gaur egun inbertitzen den dirua 170.000 eurotik gorakoa da, eta zifra hori sei halakotu da azken bost urteetan, Spainsif-en arabera –berau inbertsio arduratsuaren garapena bultzatzen duen espainiar elkarte da-. Halaber, eros daitezkeen funtsen artean, jadanik badira irizpide horiek kontuan hartzen dituzten 200 funts inguru, eta hori lagungarria da inbertsio mota hori txikizkako bezeroaren eskura jartzeko.

Gainera, Europar Batasuneko kidea den aldetik, Estatua eta –hortaz- Euskadi testuinguru positibo batean mugitzen dira, zeren Europak inbertsio jasangarrien



munduaren liderra baita, konputu globalaren ia 30 bilioi dolarren erdiarekin. Zehazki, inbertsioaren % 46 du, eta hazten jarraitzea espero du.

Jokaleku horretan, bultzatutako ekimen guztien barruan, Nazio Batuen Erakundearen inbertsio arduratsuaren printzipioak –PRI deritzanak- izan dira munduko katalizatzaile nagusia, sozialki arduratsua den inbertsioaren irizpideak hartzeari dagokionez. Sortu zirenez geroztik, PRIek 2.000 sinatzaile baino gehiago bildu dituzte, eta 80 bilioi dolarretik gorako aktibo-bolumena dute; gainera, bolumen hori etengabe hazten ari da.

www.biscayesgsummit.eus

VK Comunicación

Informazio gehiagorako:

Patricia Loredo Sierra

944 01 53 06 / 629 74 90 47

patricia@vkcomunicacion.com



Egitaraua: Biscay ESG Global Summit

Data: 2019ko ekainaren 19an, asteazkena

Tokia: Euskalduna Jauregia, Bilbo

8:45 – 9:15 Erregistroa.

9:15 – 9:25 **“Bilbao Bizkaia Hub Finantzarioa”**: ESG ekosistema batentzako sostengua.

Unai Rementeria. Bizkaiko Ahalduen Nagusia.

9:25 – 10:15 **Teresa Ribera**. Trantsizio Ekologikorako Ministroa.

10:15 – 10:45 **Trantsizio energetikoa eta aldaketa marjinalaren garrantzia**.

Mark Lewis. Jasangarritasun-azterlanen arduradun orokorra, BNP Paribas Asset Management (BNP Paribasen aktiboen kudeaketa).

10:45 – 11:30 **Gizarte-kapitala eta konfiantza eraikiz: enpresaren gizarte-erantzukizunaren rola**.

Ane Tamayo. Kontabilitate Katedraduna, London School of Economics.

11:30 – 12:00 Atsedenaldia – Kafea

12:00 – 12:45 **Nola erantzun informazio ez-finantzarioaren gardentasunaren inguruan dagoen behar gero eta handiagoari**.

Informazio ez-finantzarioaren Legea onartu eta 6 hilabetera ikasitako lezioak.



Pablo Bascones. PwCko bazkidea, Jasangarritasun, EGE eta Klima-aldaketako arduraduna.

Eztabaida-taldea:

Erika Molinillo. Aernnovako Betearazpen Arduraduna.

Susana Molinuevo. EGE eta Betearazpen Zuzendaria CIE Automotiven.

Pablo Bascones. PwCko bazkidea, Jasangarritasun, EGE eta Klima-aldaketako arduraduna.

Moderatzailea: **Mari Luz Castilla.** PwCko Ahokulari Seniorra.

12:45 – 13:30 **Inbertsio Jasangarria.**

Oğuzhan Karakaş. Cambridge Judge Business Schooleko Finantzen Graduako Irakasle Seniorra.

Moderatzailea: **Mikel Larreina.** Deusto Business Schooleko Finantza Saileko Irakasle Titularra eta Nazioarteko Harremanetako Dekanordea.

13:30 – 14:00 **Finantza jasangarriak eraldaketa ekonomikoaren katalizatzaile gisa.**

José Manuel Marqués Sevillano. Finantza-berrikuntzaren Saileko Burua. Espainiako Bankua.

14:00 - 14:30 **Enpresen estrategia, asmo eta jasangarritasuna XXI. mendean.**

José Luis Blasco, Jasangarritasun Zuzendari Orokorra, Acciona.

Moderatzailea: **Ramón Pueyo.** Jasangarritasun eta Gobernu Onaren Bazkide arduraduna, KPMG Espainia.

14:30 – 15:45 Bazkaria Euskalduna Jauregian.

15:45 – 16:30 **ESG inbertitzaileen kezka nagusiak kotizatueta.**

Otelo Ruivo. Inbertsio-harremanen Arduraduna, GALP.

José Miguel Tudela. Antolaketa eta Jasangarritasun Zuzendaria, Enagás.

Iñigo Mendieta de la Rica. Finantza-plangintzaren eta Inbertitzaileekiko Harremanen Arduraduna, Vidrala.

Moderatzailea: **Sara Herrando.** Analisi Zuzendariordea, Norbolsa S.V.S.A.

16:30 – 17:15 **Zergatik oinarritzen dira inbertitzaile arduratsuak ESG parametroetan Akzio Onak identifikatzeko.**

Father Séamus Finn. Faith Consistent Investing programaren arduraduna. Oblate Investment Pastoral Trust.

Moderatzailea: **Carlota García-Mañas.** Ingalaterrako Elizaren Enpresekiko Elkarrizketaren Buruaren Ondokoa.



- 17:15 – 18:00 **Bizkaitik eta Bizkairantz: finantzen etorkizuneko jasagarritasuna.**
Arturo Miranda. Zuzendari Gerentea, JPMorgan.
Ignacio Gutiérrez Orrantia. Continental Europeko Presidentea. Banka Korporatiboa, Kapital-merkatuak eta CITI Aholkularitza.
Javier Hernani. CEO, BME.
Ane Tamayo. London School of Economics.
Moderatzailea: **Enrique Sáez,** Fineco – Kutxabank Banka Pribatuaren Kontseilari Delegatua
- 18:00 – 18:30 **Finantza alternatiboak: nola izan jasagarri eta inklusiboa.**
Pedro Azpiazu. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomiako Sailburua.